

# elkarberri 66

## Fisioterapiaren Munduko Eguna


Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

**octubre - diciembre 2019 / Ejemplar gratuito**

2019ko urria - abendua / Doako alea

Depósito Legal: BI-945-05 - ISSN 2444-4065



# próximos cursos
## datozen ikastaroak



### PARTE PRÁCTICA: PROGRAMA FORMATIVO DE ACTUALIZACIÓN EN EJERCICIO TERAPÉUTICO EN FISIOTERAPIA

azaroaren 16 - San Sebastián - 16 de noviembre

### ESCUELA DE ESPALDA: PILATES TERAPEÚTICO, HIPOPRESIVOS Y EJERCICIO FUNCIONAL. III EDICIÓN

azaroaren 16 - San Sebastián - 16 de noviembre





### SPINE & CONTROL: ABORDAJE CLÍNIC DEL DOLOR LUMBAR. II EDICIÓN

azaroaren 22 - Bilbao - 22 de noviembre

IKASTARO HASIA
CURSO COMENZADO

### INDUCCIÓNMIOFASCIAL NIVEL I

abenduaren 13 - Vitoria - Gasteiz - 13 de diciembre



El COFPV se reserva el derecho de poder modificar el lugar de celebración del curso o alguna fecha, debido a necesidades de los docentes y razones ajenas a la organización.

Las plazas se otorgarán por riguroso orden de inscripción a los cursos, debiéndose hacer a través de la web colegial (www.cofpv.org)

EFEOk ikastaroaren lekua edo data aldatzeko eskubideari eusten dio, irakasleen beharrizanak eta antolatzaileekin zerikusirik ez duten arrazoiak tarteko direla.

Ikastaroetako inskribapenaren ordenagatik bananduko dira plazak, webgunearen bidez egin beharrekoa (www.cofpv.eus)



**Andrea Scolari**
Vocal del COFPV
*EFEO-ko batzordekidea*

# editorial
# editoriala

## Día Mundial de la Fisioterapia: identidad y pertenencia

El término **pertenencia** se define como el hecho o la circunstancia de formar parte de un conjunto, ya sea un grupo, una comunidad, una organización, una institución, etc.

El concepto de **grupo de pertenencia** hace mención al grupo social del que forma parte una persona al compartir valores, creencias, gustos o comportamientos.

La **sensación de pertenencia** a estos conjuntos permite que el individuo se sienta acompañado por pares y ayuda a desarrollar su identidad, ya que se reconoce y se presenta ante el resto de la sociedad como parte de un grupo.

Estos párrafos extraídos de la página https://definicion.de/pertenencia/ describen y sintetizan un valor fundamental que nos lleva a celebrar cada 8 de septiembre el Día Mundial de la Fisioterapia y que, en esta ocasión, quisimos festejar organizando la Jornada titulada “Mecanismos del Dolor y su abordaje Fisioterapéutico”.

El pasado 14 de septiembre, el Museo Marítimo de Bilbao acogió a un **grupo** de 147 personas, la mayoría de ellas fisioterapeutas, que tuvimos la oportunidad de compartir **identidad** y **pertenencia** a esta maravillosa profesión.

Desde el COFPV queremos dar las gracias a todos los asistentes y a todas las personas que con su granito de arena consiguieron que nuestro día fuera un éxito. ¡Los/as esperamos en la celebración del próximo año!

## Fisioterapiaren Munduko Eguna: identitatea eta atxikimendua

Atxikimendua terminoa honela definitzen da: multzo baten partaide izateko egintza edo inguruabarra; izan taldea, komunitatea, elkartea, erakundea...

Atxikimendu-taldearen kontzeptuak gizarte-talde bati egiten dio erreferentzia, hain zuzen ere, pertsona batek bere balore, ideiak, nahiak edo jarrerak partekatzean parte hartzen duen gizarte-taldeari.

Multzo horiekiko atxikimendu-sentsazioak ahalbidetu egiten du pertsona bere kideek lagunduta sentitzea, eta lagundu egiten dio bere identitatea garatzen; izan ere, talde baten kide gisa antzemateN eta aurkezten du bere burua gizartearen aurrean.

Paragrafo horiek https://definicion.de/pertenencia/ webgunetik atera ditugu, eta irailaren 8an Fisioterapiaren Munduko Eguna ospatzera eramaten gaituen oinarrizko balorea deskribatzen eta laburbiltzen dute.

Joan den irailaren 14an, Bilboko Itsas Museoak 147 lagun jaso zituen, gehienak fisioterapeutak, eta lanbide zoragarri horren identitatea eta atxikimendua partekatzeko aukera izan genuen.

EFEOkoek eskerrak eman nahi dizkiegu bertaratu ziren guztiei eta gure eguna arrakastatsua izan zedin lortu zuten guztiei. Zain izango gaituzue hurrengo urteko ospakizunean!

# sumario
# aurkibidea

**2** **cursos** ikastaroak
**3** **editorial** editoriala
**4** **noticias** berriak
**14** **articulo** artikuloa
**20** **asesoría jurídica** aholkularitza juridikoa
**22** **anuncios** iragarkiak
**26** **colegiados** elkargokide

**Presidencia y Dirección** Lehendakaritza eta Zuzendaritza
Iban Arrien Celaya
**Coordinación** Koordinazioa:
Comisión Comunicación, Publicidad y Protocolo
**Realización y Maquetación** Gauzatzea eta Maketazioa
J&J Creativos
**Fotografía** Argazkigintza
ORO
**Edita** Argitalpena
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
**Publicación trimestral** Hiruhilabeteko argitalpena
3.130 ejemplares

**Queda prohibida la reproducción parcial o total de los contenidos publicados en este ejemplar sin autorización expresa escrita de la Junta de Gobierno del COFPV.**
**Elkarberri y el COFPV no se hacen responsables del contenido e imágenes de los anuncios publicitarios, así como de los contenidos de los artículos publicados, ya que se corresponden con la opinión de sus autores.**
Ale honetan argitaratutako edukien kopia osoa edo partziala egitea debekatuta dago, EFEO-ko Gobernu Batzordeko idatzizko berariazko baimena eduki gabe.
Elkarberria eta EFEOa ez dira iragarkien eduki eta irudien arduradunak egiten, ezta argitaratutako artikuluen edukiena, beraien egileen iritzia delako.

**Ejemplar gratuito para distribuir a los/as colegiados/as**
Elkargokideei emateko dohainezko alea



# Minare
# eta h
# fisi

## EFEOk Fis

# en mekanismoak orien abordatze oterapeutikoa

## sioterapiaren Mundu Eguna ospatu du

Irailaren 14an, Fisioterapiaren Mundu Egunari lotutako ospakizun-ekitaldien esparruan —aurten, World Confederation for Phyical Therapy taldeak efemeridea ospatzeko aukeratu duen gaia "Physiotherapists Role in Chronic Pain" izan da—, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak "Minaren mekanismoak eta horien abordatze fisioterapeutikoa" izeneko jardunaldia antolatu zuen Bilboko Itsas Museoan.

Jardunaldian, 150 aditu inguru elkartu ziren, eta besteak beste, eztabaidatu zuten esparru fisioterapeutikoan badaudela denborak aurrera egin ahala kronifikatu daitezkeen minak inplikatzen dituzten patologiak tratatzen lagun dezaketen teknikak eta prozedurak, ikerketek abalatzen dituztenak.

Jardunaldian, hizlari gonbidatuek min kronikoa abordatzeko azken aurrerapen eta estrategiak azaldu zituzten, baita Fisioterapiak eta haren profesionalek azken urteetan gaian izan duten zeregin garrantzitsua ere.



Horiek horrela, “Dolor, Cuestión de Cerebro” hitzaldian, Arturo Goicoecheak nabarmendu egin zuen marko kronikoen aurrean burmuinak hartzen duen protagonismoa, eta ebaluazio-akatsak egin daitezkeela min eta/edo benetako mehatxuaren absentziaren aurrean.



> *“Mina pertzepzio gorrotagarri eta babeslea da, inplizituki barne hartzen duena min nekrotikoaren (ikasitako) mehatxu-ebaluazio bat, kontsumatua, berehalakoa edo imajinatutakoa, eta saiheste-jarrera bat eta kausazko arakatzea sustatzen ditu”*

## *Artuto Goicoechea*

Federico Monterok, bere aldetik, Valladolideko eskualdean Lehen Mailako Arretako ekipoetan garatzen eta partekatzen duen lan bikainaren berri eman zigun, non abordatze terapeutikoak jartzen baitituzte martxan, premisa horietatik bideratutako tratamendu-protokoloen bidez. Bere hitzaldiaren izenburua “Experiencia en el Tratamiento del Dolor desde la Unidad de Estrategias de Afrontamiento Activo para el Dolor en Atención Primaria de SACYL” izan zen.



> *“Min kronikoaren atzean, arkitektura fobikoko prozesu bat dago, saiheste-mekanismoen bidez konponduko ez dena”*

## *Federico Montero*

Federico Monteroren hitzaldiaren ostean, jardunaldiaren lehen mahai-ingurua egin zen, zeinetan bertaratuek eta hizlariek bi hitzaldietan landutako gaiei buruz hitz egin zuten.

Atsedenaldia eta gero, Ana Garesen “Dolor Crónico, Suelo Pélvico y Fisioterapia” hitzaldian, ardatza izan zen nola Fisioterapiak pelbis-zoruko min kronikoa arintzen lagun dezakeen.



Eta goizeko hitzaldiei amaiera emateko, Rafael Torresek “Dolor, Consciencia y Cerebro: El Dolor Crónico como una Alucinación” izenekoa eskaini zuen; Arturo Goicoecheak bezalaxe, azpimarratu zuen burmuina dela minaren protagonista.




> *“AISPren definizioa ez da nahikoa minaren helburu biologikoa eta haren dimentsio konplexuak ulertzeko”*

## *Rafael Torres*

Lehenengo mahai-inguruan bezala, bigarrenean, bertaratuek minaren aurkako tratamendu fisioterapikoei buruzko zalantzak argitu ahal izan zituzten



Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak, Iban Arrien bere presidentearen hitzen bidez, hau adierazi zuen: "Jardunaldi honen arrakastak erakusten du gure lanbide maiteak osasun inbidiagarria duela, eta gure erakundeak lanean jarraituko du euskal gizarteak Fisioterapiatik abordatu daitezkeen askotariko patologiak ezagut ditzan".

Azkenik, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak eskerrak eman nahi dizkie bertaratuei eta hizlariei, jardunaldian parte hartzeagatik; izan ere, haiek gabe, ekitaldi honek ez luke zentzurik izango.

Espero dugu etorkizunean bertaratutako guztiekin eta etorri ezin izan dutenekin elkartu ahal izatea, Fisioterapiaren Mundu Egunaren etorkizuneko edizioetan.

***Idazketa Kontseilua***

Azkenik, eta jardunaldi bikain horri amaiera borobila emateko, Alazne Ruiz de Escuderok azaldu zuen nola murriztu daitekeen mina eskuzko terapiaren eta ariketaren bitartez, «Hands-On / Hands off» analgesia-mekanismoak erabiliz.






Formación especializada para Profesionales

**MÁSTER UNIVERSITARIO EN AVANCES EN NEURORREHABILITACIÓN DE LAS FUNCIONES COMUNICATIVAS Y MOTORAS**
*(Título Oficial)* 5ª Edición
Modalidad: semipresencial
10 seminarios de noviembre 2019 a mayo de 2020

**MÁSTER UNIVERSITARIO EN FISIOTERAPIA DEL DEPORTE Y RECUPERACIÓN A LA ACTIVIDAD FÍSICA**
*(Título Oficial)*
Modalidad: presencial
14 seminarios de septiembre 2019 a mayo de 2020

- **Introducción a INN: Integración de Neurodinámica en Neurorrehabilitación**
- **Fisioterapia Respiratoria para Adultos**
- **Bases de la Alimentación, Nutrición Humana y Dietética: Aplicación en Fisioterapia**
- **Fisioterapia del Periparto**
- **Ecografía Práctica**
- **Dolor Neuromuscular y su Abordaje con Fisioterapia Invasiva**
- **Principios de Exploración, Tratamiento y Manejo de los Trastornos Neuro-músculo-esqueléticos**
- **Fisioterapia en Disfunciones Digestivas y Coloproctología**
- **Gimnasia Abdominohipopresiva. Nivel 1**
- **Nutrición y Dietética Aplicada, Soporte Vital para el Rendimiento Deportivo**
- **Ejercicio Terapéutico en Población con Patología Neurológica (adultos y niños) en diferentes Entornos de Tratamiento (sala y piscina)**
- **Actualización en la Evaluación y el Tratamiento de las Patologías de la Extremidad Superior**
- **Fisiopatología y Abordaje de la Articulación Temporomandibular**

ADSCRITA UC UNIVERSIDAD DE CANTABRIA
ESCUELAS UNIVERSITARIAS GIMBERNAT-CANTABRIA
www.eug.es

#masqueunaescuela

EUGimbernat @EUGimbernat

C/ Aurelio García Cantalapiedra, s/n
39316 Tanos - Torrelavega (Cantabria)
Telf. 942 801 650 - 942 801 648
fisio.tor@eug.es



# Fisioterap
# irudieta



# biaren eguna
# an







# eskerrik asko

# EFEO-Zahartzaroa dekalogoa

Zuekin partekatu nahi dugu Zahartzaroa - Euskadiko Geriatria eta Gerontologia Elkartearekin batera eginiko dekalogoa.

Aurreko Elkarberrian aurreratu genuen bezala, apirilaren 15ean sinatu genuen akordioan, konpromisoa hartu genuen fisioterapiaren, zahartze aktiboaren eta ariketa fisiko terapeutikoaren arteko eraginaren balioa azpimarratzen duten ekintzak sustatzeko, eta ekintza horietako bat zen dekalogo formako manifestu sintetiko eta elebidun bat osatzea.

Dokumentuan jasotzen diren hamar puntuek elkarteak Euskadiko biztanleen alde gauzatu nahi dituen asmoak islatzen dituzte:



1

*Fisioterapiaren, zahartze aktiboaren eta ariketa fisiko terapeutikoaren arteko harreman estuaren balioa azpimarratzea.*
Poner en valor la estrecha relación entre la Fisioterapia, el envejecimiento activo y el ejercicio físico terapéutico.

2

*Gizarteari fisioterapiak zahartzen ari diren pertsonen bizi-kalitatean dituen onurak ezagutaraztea, baita desgaitasuna prebenitu eta tratatzean duen inportantzia ere, bi erakundeen sare sozialen bidezko publizitate- eta dibulgazio-kanpainen bitartez.*
Dar a conocer a la Sociedad los beneficios que proporciona la Fisioterapia en la calidad de vida de las personas que envejecen, así como su importancia en la prevención y tratamiento de la discapacidad por medio de campañas de publicidad y divulgación en las redes sociales de ambas entidades.

3

*Fisioterapeuten kolektiboaren prestakuntza sustatzea arlo horretan, eta zahartzearen fisioterapiari lotutako ikastaro, tailer eta jardunaldiak elkarrekin antolatzea bultzatzea.*
Impulsar la formación del colectivo fisioterapeuta en este ámbito y promover la organización conjunta de cursos, talleres y jornadas relacionados con la Fisioterapia del envejecimiento.

4

*Unibertsitate, zientzia-elkarte eta sektoreko beste erakunde batzuekiko lankidetza-loturak eta -eranskinak sortzea erraztea, zahartzearen eta desgaitasunaren arloan fisioterapeutei zuzendutako prestakuntza garatu, sustatu eta zabaltzeko.*

Facilitar la creación de vínculos y nexos de colaboración con universidades, sociedades científicas y otras entidades del sector para divulgar, promover y desarrollar formaciones dirigidas a fisioterapeutas en el ámbito del envejecimiento y la discapacidad.

5

*Ariketa terapeutikoak herritarren zahartze osasungarrian jokatzen duen rolari buruzko ikerketa sustatu, bertan kolaboratu eta ekarpenak egitea.*
Fomentar, colaborar y contribuir en la investigación sobre el papel que juega el ejercicio terapéutico en el envejecimiento saludable de la población.

6

*Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera ekintzak ezarri eta indartzea, arlo horretan prestakuntza-, dibulgazio-*

*eta ikerketa-ekintzak sustatzeko xedez.*
Establecer y reforzar acciones conjuntas con la Universidad del País Vasco con el fin de promover acciones formativas, divulgativas y de investigación en este campo.

7

*Lanerako agenda bat sustatzea, administrazio publikoekin (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, udalak, etab.) harremanak mantentzeko, udalerrietako kirol-instalazioetan fisioterapeutek diseinatu eta emandako ariketa terapeutikoko programa espezifikoak ezartzeko helburuarekin; hauek, adibidez: erorikoen prebentzioa, aldaka-hausturak, osteosarkopenia, osasun mentala, Parkinsona, istripu zerebrobaskularra, etab.*
Impulsar una agenda de trabajo para mantener contactos con las administraciones públicas (Gobierno Vasco, Diputaciones Forales, Ayuntamientos, etc.) con el fin de implantar programas de ejercicio terapéutico específicos diseñados e impartidos por fisioterapeutas en las instalaciones deportivas de los municipios, tales como: prevención de caídas, fracturas de cadera, osteosarcopenia, salud mental, Parkinson, accidente cerebro vascular, entre otros.

8

*Euskadin uretako fisioterapia garatzen laguntzea, prestakuntza-, dibulgazio- eta ikerketa-ekintzen bidez.*
Contribuir al desarrollo de la Fisioterapia Acuática en Euskadi a través de acciones formativas, divulgativas y de investigación.

9

*Euskal Osasun Zerbitzuarekin (Osakidetza) sinergiak ezartzea, zahartze aktiboko programak sustatu eta ezartzeko.*
Establecer sinergias con el Servicio Vasco de Salud (Osakidetza) en la promoción e implementación de los programas de envejecimiento activo.

10

*Diziplinarteko izaera indartzea zahartzearen eta desgaitasunaren abordatzean.*
Reforzar el carácter interdisciplinar en el abordaje del envejecimiento y de la discapacidad.

***Idazketa Kontseilua***



# Deustuko Unibertsitatea: Fisioterapiako Gradu berriaren proiektua

Duela egun batzuk, Deustuko Unibertsitateko arduradunek konfirmatu egin ziguten azkenaldian sarritan entzun dugun hori: Euskadin Fisioterapiako Gradu berri bat martxan jartzeko asmoa.

Proiektu handinahia da, zutik jarri berri dena, eta "martxan jartzeko esplorazio"ra bideratutako hasiera-hasierako fase batean dago.

Bere aldetik, Deustuko Unibertsitateko Psikologia eta Hezkuntza Fakultateko dekano Josu Olabarrietak iritziak jaso eta trukatzeko bilera baten berri eman zigun, eta, halaber, aholkularitza eskatu zigun unibertsitateak berak diseinatutako ikasketa-planaren zirriborroaren inguruan. Eskariari erantzuteko, lehen txosten bat egin genuen, irailaren 26an (osteguna) elkargoaren egoitzan eginiko topaketa atsegin batean partekatu ahal izan genuena.

Deustuko Unibertsitatearen aldetik, heziketa-proiektuaren arduradunak etorri ziren bilerara: Psikologia eta Hezkuntza Fakultateko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako dekanorde Mª Isabel Ariceta andrea eta fisioterapeuta eta Deustuko Unibertsitateko irakasle Ane Arbillaga andrea. Eta Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren aldetik, plazer handiz bertaratu ginen II. batzordekide eta elkargoaren PII Batzordearen arduradun Leyre Peña andrea, I. batzordekide eta elkargoaren Komunikazio, Publizitate eta Protokoloko Batzordearen kide Andrea Scolari andrea, eta Roberto Romero jauna, elkargoko idazkari gisa.

Bilera atsegina izan zen, ordu eta erditik gora iraun zuena. Bertan, proiektuaren arduradunek arreta handiz bildu zituzten gure balorazio, iritzi eta iradokizunak, ez bakarrik haiek diseinatutako ikasketa-planaren inguruan, baita proiektu osoaren inguruan ere.

Gure ustez, Elkargo Profesionalen Legean jasotzen den babesaz harago (2/1974 Legea, 5. art.), non mota horretako txostenak berariaz jasotzen baitira elkargo profesionalen funtsezko eginkizun gisa, Deustuko Unibertsitateko arduradunek erakutsitako errespetua, kezka eta interes handia, gure elkargoa proiektu handinahi horren parte eginez, aitortzekoa eta azpimarratzekoa da.

Gure aldetik, arrakasta handia opa nahi diogu Fisioterapiako Gradu berri horri, eta besterik ezin, gure laguntza absolutua eskaintzen diegu, ikasketa-planaren diseinuan aktiboki ekarpenak egin, aberastu, hobetu eta kolaboratzeko, etorkizuneko profesionalen prestakuntzan bikaintasuna bilatzearen mesedetan.

***Idazketa Kontseilua***



# Elkarberri aldizkaria osorik euskaraz jaso nahi duzu?

Elkargokide horiek:

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak jakinarazten dizu, 2020ko urtarriletik, eta gure hizkuntza-politika betez, aukera izango duzula Elkargoaren Elkarberri aldizkaria osorik euskaraz jasotzeko.

Horretarako, Elkargoari jakinarazi besterik ez duzu egin behar, ohiko bitartekoetako edozein erabiliz; hala, aldizkariaren hurrengo aletik aurrera, euskaraz jaso nahi dutenen zerrendan sartuko zaitugu.

Gogoratu, hala eginez gero, soilik euskaraz dagoen aldizkaria jasoko duzula.

*Idazketa Kontseilua*






# Prostatako prostatektomia erradikalaren ebakuntza aurreko fisioterapia-programa

Irati Palacio Gonzalez de Mendibil - 1.674. Ikargo-kidea
Leire Bernaola Etxebarria - 2.016. Ikargo-kidea COFPV
Leire Meabe Agirre - 1.987. Ikargo-kidea COFPV

## LABURPENA:

Xedea: Barrualde Galdakao ESIko Errehabilitazio Zerbitzuak prostatako ebakuntza jasoko duten pazienteei aplikatzen dien protokoloa deskribatzea. Zehazki, protokolo hori pazientea ebakuntzarako itxarote-zerrendan sartu eta ospitaleratu aurreko egunak bitartean gauzatzen da.

Metodologia: Galdakaoko Ospitaleko Errehabilitazio Zerbitzuak prostata-ebakuntza egin baino lehen fisioterapia-tratamendua jaso duten pazienteen azterketa deskribatzailea egin da, 2015eko uztailetik 2018ko uztailera bitartean.

Emaitzak: guztira, 87 gizonek egin dute prostatektomia-ebakuntza aurreko fisioterapia. Horietatik guztietatik, 13k bakarrik egin behar izan dute ebakuntza osteko errehabilitazioa; hau da, % 14,9k. Bestalde, aipagarria da guztiei egin zitzaiela laparoskopia bidezko ebakuntza.

## SARRERA:

Euskadiko plan onkologikoaren arabera, prostatako minbizia izan da gizonei hautemandako tumore gaiztorik arruntena 2009 eta 2013 bitartean.




1. irudia.Phenix Liberty.

Prostatektomia erradikala prostatako minbiziari aurre egiteko tratamendu kirurgiko erabilienetako bat da, baita gizonen gernu-inkontinentziaren kausa nagusia ere. Zehazki, ebakuntza horretan prostata bera eta hari atxikitako semen-guruinak erauzten dira.

Ebakuntzaren albo-ondorio nagusiak gernu-inkontinentzia eta disfuntzio sexuala dira, eta horiek pazienteen bizi-kalitateari eragiten diote, besteak beste. Gernu-inkontinentziak osagai subjektibo bat dauka, eta, ondorioz, ikerketen emaitzak ezberdinak dira; dena den, ondorioztа dezakegu ebakuntza hori jaso duten gizonen % 17 eta % 54 bitartean inkontinentzia dutela ebakuntza-egunetik 3 hilabete igaro eta gero.

Prostatektomia erradikala dela eta, partzialki edo erabat kaltetu daitezke maskuriaren lepoan eta uretra prostatikoan (esfinter leunean) dauden lehen bi kontinentzia-mekanismoak. Horrenbestez, pelbis-zoruan dagoen kanpoko esfinter ildaskatuaren laguntza ezinbestekoa izango da. (1. irudia). Pelbis-zoruaren errehabilitazioa azken kontinentzia-mekanismo hori entrenatzean eta sendotzean datza.

Galdakaoko Ospitalean 80 bat prostatektomia egiten dira urtean. Errehabilitazio Zerbitzuak ebakuntza aurreko fisioterapia-saioak eskaintzen ditu pazienteek jasotzen duten arreta hobetu eta ebakuntza ostean gerta daitezkeen konplikazioak saihesteko. Modu horretan, pazienteen bizi-kalitatea hobetzen da.

Ikerketa gutxi egin dira ebakuntza aurreko fisioterapiak gernu-inkontinentziaren prebentzioan zer-nolako eraginkortasuna duen baloratzeko, baina gure taldeak egindako ikerketaren emaitzak onak izan dira; beraz, merezi du emaitza horiek aztertu eta analizatzea. Espainiako Urologia Elkartearen arabera, ebakuntza aurreko fisioterapiak ez du kontinentzia erabat berreskuratzea bermatzen, baina nabarmen murrizten ditu inkontinentziaren iraupena eta intentsitate-maila.



2. irudia

Azterketa pilotu honen xedea da prebentziozko fisioterapiak prostatektomian dituen aldagaiak deskribatzea eta agerian jartzea.

Lehenik eta behin, hitzordua izaten dute urologoak eta pazienteak. Bertan, medikuak ebakuntza proposatu eta pazienteak onartu egiten du. Ondoren, Errehabilitazio Zerbitzura igortzen da pazientea, ebakuntza aurreko saioak antolatu eta baimen informatua sina dezan. Horrez gain, pazienteak hitzordua izaten du urologia saileko erizainarekin; hark informazioa eman eta ebakuntza aurreko zalantzak argituko dizkio. Horrez gain, informazio-liburuxka emango dio (2. irudia). Liburuxka hori Urologia eta Errehabilitazio Zerbitzuek egin dute elkarlanean, ebakuntzari buruz informatzeko, gomendioen eta ohitura onen berri emateko eta fisioterapia-saioetan landuko diren ariketak ezagutarazteko. Xedea da pazienteari arreta-prozesu osoan laguntzea.

## TRATAMENDU-PROTOKOLOA:

Errehabilitaziora bideratutako 3 edo 4 saio egin ohi dira. Saio horietan pelbiperionologian adituak diren fisioterapeutek hartzen dute parte, eta phenyx liberty izeneko makina eta uzki-zunda erabiltzen dira muskuluen aktibitatea erregistratzeko.

Laburbilduz, honako hau egiten da saio horie:

- MIAKETA
- KONTZIENTZIA HARTZEA
- BIOFEEDBACK-A (BFB): ZUNTZ TONIKOAK, FASIKOAK ETA PERINEOKO BLOKEOA
- DIAFRAGMA ETA ABDOMENEKO ZEHARKAKO MUSKULUA
- OHITURA ONAK ETA GOMENDIOAK

Lehenengo saioan, galdera batzuk egin eta labur-labur azaltzen zaio pazienteari zer egiten den saio horietan. Halaber, azpimarratu egiten da ezinbestekoa dela hainbat gauza berrikastea, eta ondoren, miaketari ekiten zaio. Ezinbestekoa da perineoaren kontzientzia hartzea entrenamendua hasi baino lehen. Horretarako, plantillak eta pelbis anatomikoa, pilota eta/edo norberaren haztapena erabil daitezke. Horrez gain, ebakuntzarengatik ondorioak jasango dituzten egitura abdomino-pelbikoen anatomiari eta fisiologiari buruzko azalpen laburrak ere emango dizkiogu pazienteari.

Lehenengo saioan diafragma-muskulua ere landuko dugu, perineoarekin oso lotuta dagoelako. Pazienteari arnasketa abdomino-diafragmatiko egokia egiten eta abdomeneko zeharkako muskulua aktibatzen irakatsiko diogu. Ariketa hori ebakuntza-egunetik hilabete batera egin ahal izango dute.

Hurrengo saioetan zuntz toniko eta fasikoak ezagutu eta indartzera bideratuko dira, baita perineoko blokeoa lantzera ere. BFBaren laguntzarekin egingo dugu hori; izan ere, oso tresna erabilgarria da perineoaren uzkurduraz jabetzeko.

- Tonikoak: uzkurdura submaximoa mantendu behar da 10 segundoz eta gero 10 segundoko atsedena egin, 15 aldiz (berriz ere azpimarratuko dugu uzkurdura ondo sentitzearen garrantzia. Ebakuntza eta gero, pazienteak ez badira uzkurdura 10 segundoz mantentzeko gai, denbora hori murriztu egin beharko da uzkurdura nabaritzen duten arte). (4. irudia)



4. irudia



5. irudia



6. irudia

- Fasikoak: uzkurdura maximoa mantendu behar da 3 segundoz, eta ondoren, 9 segundoko atsedena egin, 20 aldiz. (5. irudia)
- Perineoko blokeoa: eztula edo esfortzuak egitean agertzen da gehienetan, baina aintzat hartu behar da zaila izan daitekeela perineoa blokeatzea ebakuntza eta gero. Hartara, ezinbestekoa da perineoko muskuluak esfortzua egin aurretik eta ondoren uzkurtzea.(6. irudia)

Ariketa horiek guztiak beste muskulu talde batzuen laguntzarik gabe egin behar dira, besteak beste, abduktoreen, gluteo muskuluen eta abdominalen laguntzarik gabe, eta arnasketa blokeatu gabe. Ahoz gora etzanda hasiko gara, eta ondoren, apurka-apurka, zutik, hau da, funtzionaltasuna bilatuko dugu. Ikasitako ariketa horiek egunero egin beharko dira, 10 minutuz, 2 aldiz egunean.

Hona hemen ematen ditugun gomendioetako batzuk:

- Elikadura: orekatua. Saihestu egin behar dira elikagai minak eta ozpina. Halaber, saihestu egin behar da idorreria; hartara, postura egokian egin behar dira eginkariak, esfortzu hiperpresiborik egin gabe.
- Edariak: saihestu gasdun edariak eta gernu-sistema estimulatzen dutenak, besteak beste, tea, kafea eta alkohola.
- Txiza: hobe da eserita egitea, esfortzurik ez egiteko. Ez da komeni komunera gogorik gabe joatea, ezta mikzioen artean ordutegi erregularra mantentzeko saiakerak egitea ere (2 ordu). Gainera, mikzio-larrialdia sentitzekotan, ikasitako uzkurdurak egin behar dira (komunera joateko beharra gehien baretzen duen uzkurdura-ariketa).
- Ariketa fisikoa ez dago kontraindikatuta, baina saihestu egin behar dira perineoaren gainean pixa eta kaka egiteko zailtasun minbera eragiten duten apneako abdominalen lanketa.

## MATERIALA ETA METODOAK:

2015eko uztailetik 2018ko uztailera bitartean Galdakaoko Ospitaleko Errehabilitazio Zerbitzuan ebakuntza aurreko fisioterapia egin duten pazienteen datuak berrikusi ditugu. Guztira, 87 gizonek hartu dute parte saio horietan. Paziente horien adin tartea 44 eta 77 urte bitartekoa da.

3 eta 4 saio egin dituzte, batez bestean, eta saio horien xedea da perineoa ondo uzkurtzen eta ebakuntza kirurgikoaren ostean egiteko ariketa sorta bat egiten ikastea.

## EMAITZAK:

2015eko uztailaren 1etik 2018ko uztailaren 1era bitartean, 87 gizonek egin dute prostatektomia-ebakuntza jaso aurreko fisioterapia. Horietatik, 13k behar izan dute ebakuntza osteko errehabilitazioa; hau da, % 14,9k. Bestalde, aipagarria da denei egin zitzaiela laparoskopia bidezko ebakuntza. Halaber, nabarmentzeko modukoa da itzuli egin behar izan zuten gizonetatik 4k aurrekari




7. irudia

genitourinarioak zituztela.

Bestalde, ebakuntza aurreko saioak egin dituzten gizon gutxiago dago ebakuntza osteko saioetan. Ebakuntza aurreko fisioterapia egin ez duten gizonek ebakuntza osteko 16 saio egin behar dituzte, batez bestean; ostera, ebakuntza aurreko protokoloa egin dutenek, 13 (7. irudia).

## EZTABAIDA:

Galdakaoko Ospitaleko Errehabilitazio Zerbitzuak aplikatutako prostatektomia aurreko protokoloa eraginkorra da; izan ere, pazienteen % 86,1ek ez du inolako tratamendurik behar ebakuntza ostean. Ebakuntza aurreko errehabilitazioari buruzko ikerketa gutxi dagoen arren, pazienteentzat oso lagungarriak direla ondoriozta dezakegu gure esperientzian oinarrituta; izan ere, ebakuntzara askoz ere lasaiago doaz informazio asko daukatelako eta pelbis-zoruko ariketak ondo egiten irakasten zaielako. Horren harira, azpimarragarria da paziente gehienek ez dutela perineoaren kontzientzia ona, eta gaizki uzkurtzen dutela perineoa.

Bestalde, ebakuntza aurreko errehabilitazioa egin zuten eta egin ez zuten pazienteek behar dituzten ebakuntza osteko saioen batezbestekoari erreparatuta, esan dezakegu ebakuntza aurreko fisioterapiak gernu-inkontinentziatik hobeto eta azkarrago errekuperatzen laguntzen duela.

Espero dugu artikulu hau irakurri eta gero, Errehabilitazio Zerbitzu ezberdinek prostatektomia-ebakuntza aurreko fisioterapia eskaintzeko aukera baloratzea eta profesionalak datu gehiagoko azterketak egitera animatzea (ebakuntza motak, ebakuntza aurreko denbora...), modu horretan beren bizi-kalitatea kaltetuta ikusten duten pazienteei emandako arreta aztertu, erkatu eta hobetu ahal izateko.

## ESKER ONAK:

Esker onak eman nahi dizkiogu Galdakaoko Ospitaleko Errehabilitazio Zerbitzuari, eman digun arreta eta laguntzagatik, bereziki Errehabilitazio Zerbitzuko idazkari Rosari Vázquez eta Errehabilitazio Zerbitzuko gainbegirale Arantza Zabalari. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu kide ditugun fisioterapeuta guztiei, eman diguten babesagatik.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK:


- *Moul, J.W.: Pelvic muscle rehabilitation in males following prostatectomy. National Association for continence,1999.*
- *Castille Y, Plaghki L, Van Cangh P, Rôle de la rééducation dans la prévention de líncontinence urinaire après prostatectomie radicale totale. Thèse de doctorat, Universite catholique de Lovaine-la-Neuve, 2003.*
- *Ghislaine Philippe, Reeducation perineale masculine, Robert Jauze editeur, 2013*
- *Plan Oncológico de Euskadi 2018-2023*
- *Collado Serra, A.; Pellicer Cabo, M.; Rubio-Briones, J. et. al., El programa intensivo de rehabilitación del suelo pélvico preoperatorio reduce la incontinencia urinaria de esfuerzo post-prostatectomia radical: resultados de un ensayo clínico aleatorizado,2103.*


*Irati Palacio Gonzalez de Mendibil*
1.674. Ikargo-kidea

*Leire Bernaola Etxebarria*
2.016. Ikargo-kidea COFPV

*Leire Meabe Agirre*
1.987. Ikargo-kidea COFPV

Elkarberri hiruhileko aldizkarian artikuluak edo iritziak argitaratzea erabat doakoa da Euskadiko elkargokide guztientzat.

